



- Martxoaren **21a ezkerro** ez naiz joan lanera.
- Martxoaren **21az gero** ez naiz joan lanera.





IZENA + EZKERO/-**(E)**Z GERO

Izenekin eratutako denborazko postposizioetan bi formak erabil daitezke:

- *-(e)z gero*
- *ezkeru.*

- Psikiatra pribatu batengana bidali zintuzten, baina bigarren saio**a ezker** ez zinen itzuli...

Hauts haietatik, Unai Villena, 2016.

- [...] saio**az gero** ez zinen itzuli...

- Gainera, zangoetako batean zauri larri bat zeukan goizeko gertaer**ak ezker**...

Metamorfosia, Franz Kafka. Euskaratzailea: Anton Garikano, 2016.

- [...] goizeko gertaer**ez gero**...

- Goizeko laur**ak ezker** omen dago lanean.

Martutene, Ramon Saizarbitoria, 2012.

- Goizeko laur**ez gero**...

- Lutero **ezkeru** Alemaniak ez du eman gizon bat handiago eta hobea Lessing baino.



Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua, Joxe Azurmendi, 2007.

- Lutero**z gero** Alemaniak...

- Sanjuan**ak ezkeru**, ordea, etengabeko festa-soka dago aukeran, sokasaltoan ibili nahi duenarentzat.

Itsasoan euri, Joxerra Garzia, 2003.



- Sanjuan**ez gero**, ordea, etengabeko...



NORA + EZKERO

- Honetara ezkerro, Edurnek barkatuko didan itxaropenik ez dut.
 - Honetara / puntu honetara helduta... *Zangoztraba, Juan Kruz Igerabide, 2014.*
- Behin adin batera ezkerro, pertsona barrura begira jartzen omen da.
 - Behin adin batera helduta... *Arrazoia ez dago edukitzerik, Iñaki Segurola, 2012.*
- Eztabaidaren puntu honetara ezkerro, konplexutasuna hausnartzea saihestu ezineko kontua da.
 - Eztabaidaren puntu honetara helduta... *Formen matxinada, Wagensberg, J. Euskaratzailea: Juan Garzia, EHU, 2007.*



ERAKUSLEA + EZKERO

Erakusleekin osatutako adberbioetan, **EZKERO** erabili behar da, baina erantsita:

- **honezkero**
- **horrezkero**
- **harrezkero**

Eta ez: **honez gero, horrez gero, harez gero.**



ERAKUSLEA + EZKERO

- Luis Mariano aurkeztu nion eta **harrezkero** Canarok ez du beste inor entzun nahi.

* ...eta **harrez gero**...

Elkarrekin esnatzeko ordua, Kirmen Uribe, 2016.

- **Harrezkero** ez dira inoiz itzuli.

Post-it bizitzak, Iolanda Zuñiga. Euskaratzailea: Iñigo Roque, 2014.

- Víctorrek **honezkero** hirurogei urte izango dituela pentsatzen du, eta ...

* Víctorrek **honez gero**...

Intemperies (babes bila), Lourdes Oñederra, 2013.

- 49.eko soldaduek ontsa ikasia dute mekanismoa **honezkero**.

Su zelaiak, Mikel Perurena, 2014.



PARTIZIPIOA + -(E)Z GERO

*PARTIZIPIOA **EZKERO**

- Batak A esane**ez gero**, bestea obligatua sentitzen da B esatera... [baldintza: ...esaten badu...]
- *Batak A esan **ezkeru**, bestea...
Lapur banden etika ala politika, Joseba Sarrionandia, 2015.
- Filmazioa bukatu**ez gero**, aktoreak estudioan giltzapetuta egon ziren egun askoan... [denbora: ...bukatu ondoren...]
- *Filmazioa bukatu **ezkeru**, aktoreak...
- *Filmazioa bukatu**ez gero**, aktoreak...
*Arte zinematografikoa, Bordwell, D. Euskaratzailea: Idoia Santamaría, EHU, 2011.
 (adibide moldatua)*



ADITZ JOKATUA + EN + EZ GERO

* ADITZ JOKATUA + EN + **EZKERO**

- Gainera, hain patio handia dugunez gero, uste dut primeran moldatuko garela.

[Kausa: ... hain patio handia denez, uste dut...]

- *...patio handia dugun **ezkeru**...

Hona hemen gu biok, Dorothy Parker. Euskaratzailea: Mirentxu Larrañaga, 2006.

- Gabonetako oporrak bukatu direnez gero(ztik) asko hitz egin du ikasleekin gertatutakoaz.

[Denbora: ...bukatu direnetik, asko...]

- *...bukatu diren **ezkeru / ezkeroztik**...

Waterloo-n galdutakoak, Xabier Etxaniz Rojo, 2016.
 (adibide moldatua)